



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko apirilaren 15a

35 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea aldatzen duena ([3. or.](#)).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako liburutegien sistema arautzekoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua ([5. or.](#)).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako liburutegien sistema arautzen duena, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua ([13. or.](#)).

—Foru Lege proposamena, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena ([20. or.](#)).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Industrializazio Plana bidal dezan, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua ([21. or.](#)).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hizkuntza Eskola Ofizialeko euskara-irakasleen plantilla osa dezan, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua ([22. or.](#)).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bizikletari buruzko plan zuzentzaile bat presta dezan, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua ([23. or.](#)).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoa bana ez dezan eta ikastetxe elebidun gisa mantentzen, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua ([24. or.](#)).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza-zentroetan lagunduak diren zaharrentzako arretaren kalitatea hobetzeko araudia gaurkotu dezan, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua ([25. or.](#)).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Larrako Natur Erreserban ipar eskiko zentro baterako obra-proiektua egiteko xedez sinaturiko protokoloari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egin (27. or.).
- Galdera, SOS Navarra-Larrialdien Koordinaziorako Zentroan Positrón sistema behin betikoz ezartzeari buruzkoa, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egin (28. or.).
- Galdera, kablearen instalazioari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egin (28. or.).
- Galdera, herrietara eta industrialdeetara gasa eramateko planaren garapenari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egin (29. or.).
- Galdera, Larrako Natur Erreserbarako eraikuntza-proiektu bat finantzatzeari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egin (30. or.).
- Galdera, Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoa banatzeari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egin (30. or.).
- Galdera, komunikazio informatikoetan erabiltzaileak babesteari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egin (31. or.).
- Galdera, Médicos Sin Fronterasek oinarritzko medikamentuak eskuratzeko xedez eginiko kanpainan laguntzeari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egin (31. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2002ko martxoaren 25ean hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea.

2.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Herrilan eta Azpiegitura Batzordearen esku uztea.

3.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun baliaduneko epea irekiko da, 2002ko maiatzaren 6ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Foru Lege proiektua, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

I. Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeak, 2. artikuluko 1. idatz-zatian, zabalagoko estaldura duten komunikabideek berariaz Nafarroako Foru Komunitatera mugaturik egiten dituzten emisioak ere sartzen ditu bere aplikazio eremuan. Halaber, 29. artikulua, Ikus-entzunezko Komunikabideen Titulartasunaren Erregistroari dagokionez, xedatzen du Sozietate titularren eskrituraren edo estatutuen edozein aldaketaren berri eman beharko zaiola Erregistroari, baita bere administrazio organoen osaeraren berri ere. Gora-behera horiek Merkataritza Erregistroan ager daitezen, lehenago Ikus-entzunezko Komunikabideen Titulartasunaren Erregistroari jakinarazi beharko zaizkio.

II. Estatuko Administrazioak horrekiko desadostasuna adierazi zuen, zioelarik agindu horiek ez zetozeela bat Konstituzioarekin, horrek Estatuari esleitzen dizkion eskumenak ez zituelako errespetatzen. Estatuko eta Foru Komunitateko Administrazioek, 2001eko urriaren 8ko Lankidetzaren Batzordean, erabaki zuten negoziazioei ekitea desadostasun horrekin bukatzeko. Estatuko Administrazio Nagusiak eta Nafarroako Foru Komunitateak, 2002ko otsailaren 25ean Lankidetzaren Batzordean izaniko negoziazioen ondorioz, erabaki dute Foru Lege hori aldatzea, agindu horiek Konstituzioari egokitzeko, honelaxe:

a) 18/2001 Foru Legeko 2.1 artikulutik hau kentzen da: "horren barrenean zabalagoko estaldura duten komunikabideek berariaz Nafarroako

lurraldera mugaturik egiten dituzten emisioak ere sartzen dira". Horrekin batera, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren eginkizunak aldatzen dira. Espresuki beste eginkizun bat esleituko zaio, administrazio eskudunen neurriak eskatzekoa alegia, ikus-entzunezko komunikabideen bidez Nafarroako Foru Komunitaterako berariaz egiten diren programazioei dagokienez, horien emisioak Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren menpe ez badaude.

b) 29. artikuluko 2. idatz-zatiko azken lerroaldea aldatzen da. Merkataritza Erregistroan inskribatu beharraren ordeaz aski izanen da Erregistro horrek Ikus-entzunezkoen Komunikabideen Titulartasunaren Erregistroari aurretik jakinarazi ez zaizkion sozietate-eragiketak jakinaraztea.

III. Halaber, proiektuan Foru Legearen testuaren aldaketa xehe bat ere sartzen da, argigarri eta praktikoa. Horrela xedatzen da Ikus-entzunezkoen Kontseiluko langileak Nafarroako Administrazio Publikoetako langileei buruzko legeen menpe egonen direla, beharrezkoak ez diren gainerako aipuak kenduta.

1. artikulua. Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeko 2. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen da. Honelaxe utziko da:

"2. Foru Lege hau Nafarroako Foru Komunitateko lurraldeko mugetan, betiere, soinuen eta telebistako seinaleen irrati-hedapeneko zerbitzuei aplikatuko zaie, zein ere zabalpen bide erabiltzen duten. Soinuen eta telebistako seinaleen irrati-hedapeneko zerbitzuei ere aplikatuko zaie, Nafarroako Foru Komunitateak berak zuzenean edo bere autonomia esparruan titulu gaitasun-emailea eman dien operadoreek egiten dituztenei."

2. artikulua. Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeko 26. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen da. Horren bukaeran beste lerroalde bat gaineratuko da, v) letra eta testu hau edukiko duena:

"v) Eskatzea beste agintaritza arau-emaileei edo ikus-entzunezko komunikabideetan eskumenak dituzten administrazio publikoei neurri egoikiak har ditzatela ikus-entzunezko programazioa eta publizitateari buruzko legeekin bat ez datozen jarreraren aurrean, haien emisioak Nafarroan zabaltzen badira eta Kontseiluaren menpe ez badaude."

3. artikulua. Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeko 29. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen da, honelaxe utziko dena:

"2. Sozietate titularren eskrituraren edo estatutuaren edozein aldaketa jakinarazi beharko zaio erregistroari, eta halaber administrazio organoen osaera ere. Inguruabar horiek Merkataritzako Erregistroak Ikus-entzunezko Komunikabideen Titulartasunaren Erregistroari jakinarazi beharko dizkio, sozietate titularrek lehenago jakinarazi ez badizkiote."

4. artikulua. Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeko 32. artikuluko osoa aldatzen da, honelaxe utziko dena:

"32. artikulua. Kontseiluko langileak.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko langileak merezimendu eta gaitasunaren printzipioei jarraituz hautatuko dira eta Nafarroako Administrazio Publikoetako langileei buruzko legeen menpe egonen dira."

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako liburutegien sistema arautzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Batasuna Parlamentuko Taldeak Nafarroako liburutegien sistema arautzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Nafarroako liburutegien sistema arautzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Nafarroako liburutegien sistema arautzeko foru lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Gizarte demokratiko baten askatasuna, garpena eta aurrerapena erdiesteko bidea herritarrak beren eskubideez baliatzen hezte eta informazioa, jakintza eta kultura libreki eskuratzen laguntzea da, norik bere erabakiak har ditzan eta gizartearen bizitzan paper aktiboa izan dezan.

Botere publikoen eginkizuna da herrien historia, kultura eta arte ondarearen iraupena –baita hura osatzen duten ondasunena ere– bermatzea eta aberastu dadin sustatzea, edozein izanik ere horien araubide juridikoa eta titularitatea. Ondare historikoaren barrenean, funtsezko garrantzia du ondare bibliografiko eta dokumentalak, bai hizkun-

tza, komunikaziorako eta gizarte bizikidetasunerako oinarritzko tresna dela ulerturik, bai nortasun historikoa atxikitzeko bideetako bat delako.

Nafarroak du erabateko eskumena ondare, artxibo eta liburutegien arloan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan ezarritakoaren arabera (13/1982 L.O.).

Nafarroako liburutegi publikoen sistema funtsezko bi ideiaren inguruan dago egituraturik: lehendabizikoa, koordinazioaren printzipioan oinarritutako sistema izatea, gure gizarteak plazaratzen dituen mota anitzeko eskaerei erantzuteko behar den malgutasunaz hornitua. Bigarrena, administrazioen, erakundeen eta titular pribatuen arteko lankidetzaren printzipioa bultzatzen da, sistema garatzeko bide gisa, batzuek zein besteek egin ditzaketen liburutegi eskaintzak integratuz sistema bera sendotu egiten baita.

Beraz, Nafarroak dituen eskumen erabatekoez baliatuz, bidezkoa da liburutegiei buruzko lege bat onestea, liburutegien zerbitzua zehaztu eta arautzeko. Lege horrek ezarri beharko ditu, halaber, zerbitzu horrek eduki beharreko ezaugarriak eta egitura, zertarako eta bi alderdi hauek bermatze-ko: zerbitzua bera eta Nafarroako herritarrek informazioa publikoki eskuratzeko eta irakurketarako duten eskubidea egiaz erabili ahal izatea.

I. TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Legearen xedea

Lege honen xedea da Nafarroako liburutegien sistema planifikatu, sortu, antolatu, jardun eta koordinatzeko beharrezkoak diren funtsezko oinarriak eta egiturak ezartzea eta, halaber, liburutegien jarduna egokia izatea eta informazioaren gizarteak eta teknologia berriek zedarrituriko esparru berrian, irakurketa, informazioa, jakintza eta kultura bereganatzeko pertsona guztiek duten eskubideaz baliatzea ahalbidetuko duten zerbitzuak bermatzea, Nafarroa osoan.

2. artikulua. Liburutegiaren kontzeptua.

1. Liburutegia da, lege honen ondorioetarako, liburuez, aldizkakoak diren eta ez diren argitalpe-
nez, grabatuez, mapez, soinu, ikus-entzunezko
eta multimedia grabazioez, dokumentazio grafiko-
ez eta bestelako material bibliografikoez, eskuiz-
kribuez, inprimakiez edo edozein euskarritan erre-
produziturikoez osaturiko edozein multzo antolatu,
baldin eta horren xedea bada dokumentu horiek
bildu, gorde eta zabaltzea, baita pertsona guztien
eskura jartzea ere, bitarteko egokiak –teknika,
espazio eta langileen arloetakoak– erabiliz infor-
mazioa, jakintza, ikerketa, hezkuntza, kultura eta
aisia helarazteko.

2. Liburutegiak, lege honen ondorioetarako,
publikoak, interes publikokoak edo pribatuak iza-
nen dira.

a) Liburutegi publikoa: erakunde publikoek sor-
tua eta mantendua, zerbitzu publikoa emateko
helburuarekin.

b) Interes publikoko liburutegia: izaera pribatu-
ko pertsona fisikoek edo juridikoek sortua eta zer-
bitzu publikoa ematen duena.

c) Liburutegi pribatua: jabetza pribatukoa, per-
sona fisikoena edo juridikoena, eta jabeek
beraiek erabiltzeko dena.

3. artikulua. Bildumaren kontzeptua

Lege honen ondorioetarako, bilduma da inte-
res bereziko edozein funts, indarra duten arauak
liburutegietarako ezartzen duen tratamendu biblio-
tekonomikoa ez duena. Bildumak zehaztu eta
babesteko moduak Nafarroako kultur ondareari
buruzko legeek ezarriko dituzte.

4. artikulua. Aplikazio esparrua.

Lege honen aplikazio esparruak honakoak har-
tzen ditu:

a) Zerbitzu publikoa ematen duten eta Nafa-
rroako liburutegien sisteman sarturik dauden libu-
rutegiak, titularitate publikokoak zein pribatukoak.

b) Kultur balio berezia duten eta Nafarroako
kultur ondarekotzat harturik dauden liburutegiak
eta bildumak, publikoak zein pribatuak, ondare
hori arautzen duen legeriarekin bat.

5. artikulua. Informazio bibliografikoa eskura
izatea.

1. Liburutegien funts guztien katalogazio bate-
ratu eta partekatua eta haien elkarren ezagutza
bermatzeko, Nafarroako Gobernuak katalogo
kolektibo bakar batean bilduko ditu Nafarroako
liburutegien sistemako kide diren liburutegien fun-

tsen erreferentzia bibliografikoa, eta koordinatu
eta kudeatu egingen du katalogo hori.

2. Nafarroako Gobernuak bermatuko du aurre-
ko idatz-zatian aipatzen den katalogo kolektiboan
dagoen informazioa herritar guztien eskura ego-
tea; behar diren neurriak hartuko dira etnia, erlijio
zein hizkuntz gutxiengoaren eskubideak aintzat har
daitezten.

3. Nolanahi ere, segurtasun eta kontserbazio
arrazoia direla-eta, eskuizkribuak, inkunabileak
eta zehaztuko diren beste funts batzuk eskuratzeko
aukera murriztu ahalko da, ikertzaileei horiek
kontsultatu eta aztertzeko bidea itxi gabe.

4. Lege honen aplikazio esparruan dauden libu-
rutegiak ematen diren erregelamenduzko xedape-
nei lotuko zaizkie eta informazioa trukatu ahal iza-
teko beharrezkoak diren neurri teknikoak hartuko
dituzte.

6. artikulua. Lankidetzaren printzipioak

Nafarroako Gobernuak lankidetzan arituko da
toki administrazioekin eta beste erakunde batzue-
kin, bere funtsetarako liburutegi egiturak sustatu
eta hobetzeko xedearekin.

II. TITULUA**Nafarroako liburutegi publikoen sistema****I. KAPITULUA****Arau orokorrak****7. artikulua.** Definizioa eta osaketa

Sistema hau, pertsona guztien behar orokorre-
nola erabiltzaile batzuen behar zehatzei erantzue-
teko egun dauden liburutegi zerbitzuen multzo
antolatua da. Hauexek osatzen dute:

a) Nafarroako Liburutegi Nagusia.

b) Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarea.

c) Unibertsitateetako liburutegiak, irakaskuntza
ez-unibertsitarioko ikastetxeetako liburutegiak,
titularitate publikoko liburutegi espezializatuak eta
titularitate pribatuko liburutegi espezializatuak,
baldin eta hitzarmen baten bidez beren funtsak
jendeak erabiltzeko moduan jartzen badituzte.

d) Nafarroako Gobernuak administrazioak sor-
tutako liburutegiak eta autonomia erkidegoen edo
estatuaren titularitateko zentroetako liburutegi
osagarriak, horien kudeaketa Nafarroako Gober-
nuak eskualdatua duen kasuan.

e) Aipatutako liburutegi horien menpeko liburu-
tegi zerbitzuak, finkoak zein ibiltariak.

Nafarroan dauden liburutegi baliabideei ahalik eta etekin handiena ateratzeko, Nafarroako liburutegien sistemaren esparru bakoitzeko liburutegiek lankidetzarako bideak ezarriko dituzte, hala bada, egokitzat jotzen diren hitzarmenen bitartez.

8. artikulua. Liburutegi publikoaren kontzeptua

1. Liburutegi publikoak dira funts orokorra izan, kultura, hezkuntza, josteta eta gizarte mailetakoa informazio zerbitzu anitza eskaini eta pertsona guztien eskura daudenak, jende guztiarentzat, oro har, nola erabiltzaile talde zehatz batzuentzat.

2. Liburutegi publikoek eskainiko dituzten zerbitzu oinarrizkoak libreak eta doakoak izanen dira eta zerbitzu bereiziak eskainiko dizkiete helduei eta haurrei.

3. Liburutegi publikoek, tokian tokiko gizarte laguntzako zerbitzuen laguntzaz, etxetik atera ezinik dauden irakurleei liburuak maileguan hartzeko zerbitzua eskainiko diete, baita liburutegi zerbitzuak ere bertako ospitaleei, presondegiei, zaharretxeei eta abegi etxeei.

4. Liburutegi publikoek erantzuna emanen diete irakurtzeko arazoak dituztenen beharrei, liburu soinu-dunen edo bestelako ikus-entzunezko dokumentuen bidez edo irakurketa errazteko pentsaturik dauden beste material inpresoko batzuk erabiliz.

5. Liburutegi publikoen funtsak denentzat eskura daude, eta mailegurako erabili ahal izanen dira. Nolanahi ere, segurtasuna edo kontserbazioa dela-eta beharrezkoa denean, funts horietatik batzuen erabilera mugatu daiteke, behar den justifikazio txostena egin eta interesatuari helarazi ondoren.

6. Orobat, liburutegi publikoek, Nafarroako errealtate soziolinguistikoa kontuan harturik, euskaraz eta gaztelaniaz emanen dituzte zerbitzuak.

9. artikulua. Zerbitzuen kartera

1. Zerbitzuen kartera da Nafarroako liburutegi publikoen sistemak eskaintzen dituen zerbitzuen multzoa, zeinek zeinentzat ematen dituen adierazirik. Zerbitzuen kartera horretan herritarrei zuzenduriko liburutegi zerbitzuak deskribatzen dira, eta zehaztu egiten da zein den, horiek betetzeko, administrazioak hartzen duen konpromisoa, nahikotasun eta kalitate maila dagokienez.

2. Nafarroako Gobernuak liburutegi publikoen sistemaren zerbitzuen kartera prestatu, garatu, aztertu eta gaurkotuko du eta oinarrizko zerbitzuak Nafarroako liburutegi publiko guztietan ematen dela bermatuko du.

3. Guztiarekin ere, helduentzako nola haur eta gazteentzako oinarrizko zerbitzu gutxienekoak hauexek dira:

a) Argitalpen monografikoak eta seriatuak aretoan bertan kontsultatzea.

b) Agiriak kopiatzea lege ezarritako arauekin bat.

c) Informazioa eta erreferentzia.

d) Liburuen banakako mailegua.

e) Liburutegien arteko mailegua.

f) Informazioa eskuratzea teknologia berrien bidez.

4. Oinarrizko zerbitzuak emateko kontuan hartu beharko dira eskola eta unibertsitate liburutegiak, liburutegi espezializatuak eta interes publikokoak.

10. artikulua. Eskumen administratiboak

Nafarroako Gobernuarena eta toki administrazioena, biena da Nafarroako liburutegien sistemaren gaineko erantzukizuna. Ildo horretan, liburutegien arloko politikaren diseinua eta plangintza bi administrazioen artean gauzatu beharko dute, ezartzen diren tresnen bitartez.

Administrazio horien jarduketa zenbait printzipiotan oinarrituko da –koordinazioa, eraginkortasuna, ekonomia eta lege honetan ezartzen diren eskumen esparruen errespetua– eta, halaber, lege hau garatuko duten xedapenetan eta bi entitateek helburu horrekin izenpetuko dituzten hitzarmenetan.

Nafarroako Gobernuak honako eskumen hauek, besteak beste, izanen ditu sisteman sarturiko liburutegi eta bildumen inguruan:

a) Dagokion toki administrazioarekin batera, liburutegi estatikoak sortu eta mantentzea 1.500 biztanletik gorako Nafarroako herri guztietan, irakurketa publikoaren mapak eta xede horrekin izenpetuko diren hitzarmenek ezarritakoari jarraituz.

b) 1.500 biztanletik beherako herrietan, liburutegi estatikorik ez dutenetan, bizi direnek irakurketa publikoaz baliatzeko aukera izan dezaten bermatzea, liburutegi zabalkunderako zerbitzuen bitartez.

c) Gai honekin zerikusia duten alderdiak, bereziki ondokoak, arautu eta garatu behar dituzten erregelamenduak ematea:

- Liburutegien kudeaketaren oinarri orokorrak eta jardunbidea.

- Azpiegituren baldintza teknikoak.
 - Funtsen katalogazioa eta sailkapena.
 - Irakurketa publikoaren katalogo kolektiboaren mantentze lana.
 - Nafarroako liburutegien sisteman sarturiko liburutegien koordinazioa.
 - Langileak
 - a) Irakurketa publikoaren mapa egin eta gaurkoturik edukitzea.
 - b) Legea eta hura garatzen duten araudiak betetzen ote diren ikuskatzea.
 - c) Bost urtean behin liburutegi zerbitzuen plan estrategiko bat taxutzea, bertan liburutegi zerbitzuaren jardueretan eta hura ematean segitu beharreko jarraibideak garatzeko, epe motz eta luzerako helburuak zehazteko eta horiek erdieste-ko behar diren baliabideak planifikatzeko, irakurketa publikoaren mapak eta kudeaketarako gaine- rako tresnek zedarrituriko esparruan.
 - d) Nafarroako liburutegi publikoen sistema kudeatzea.
 - e) Sisteman sarturiko liburutegien jardunbidea koordinatzea, bere gain dituzten eginkizunak bete ahal ditzaten.
 - f) Liburutegien eta bildumen antolaketa eta zerbitzuak ikuskatzea, indardun legedia betetzen ote den egiaztatzeko.
 - g) Bestelako administrazio eta erakundeekin lankidetzan aritzea, hitzarmenak izenpetuz, ezarri- tako moduan.
 - h) Nafarroako liburutegien eta bildumen erre- gistroa onartu, antolatu, gaurkotu eta kudeatzea.
- Toki administrazioen esku daude honako eskumen hauek:
- a) Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan, libu- ruregi egonkorak sortu eta mantentzea 1.500 biz- tanletik gorako herrietan, irakurketa publikoaren mapak eta bi aldeen artean izenpeturiko hitzarme- nek ezarritako moduan.
 - b) 1.500 biztanletik gorako herrietan, liburutegi egonkorrik ez dutenetan, parte hartzea, ezarriko den neurrian, irakurketa publikoaren zerbitzua ematen.
 - c) Irakurketa publikoa koordinatu eta sustatzea udalerrian, horretarako baliabideak kontsignatuz aurrekontuetako kontusailetan.
 - d) Kultur politika koordinatua eta integratzailea taxutzea, zeinetan liburutegiak komunitatearen

funtsezko kultur eragileetako baten papera beteko duen.

11. artikulua. Eskumenen garapena.

Eskumenen garapena, zehaztaper guztiak barne, irakurketa publikoaren mapan aurreikusiko da, eta Nafarroako Gobernuak toki administrazio-ekin izenpetuko dituen hitzarmenek bilduko dute.

12. artikulua. Erregistroa

Nafarroako Gobernuak Nafarroako liburutegi publikoen sisteman sarturik dauden liburutegien erregistro gaurkotua eramanen du, eta, herrita- rrentzako beste zerbitzu publiko bat den aldetik, zabaldu eginen du.

13. artikulua. Liburutegi publikoen sisteman sartzea

Edozein liburutegi Nafarroako liburutegi publi- koen sisteman sartzeko Nafarroako Gobernu-ko departamentu eskudunean kontseilari dagoenak emaniko ebazpena beharko da, liburutegiaren kudeaketan zerikusia duten aldeek hitzarmen bat sinatu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara- tu ondoren. Hitzarmen horretan agertuko dira ordutegiei, zerbitzuei, finantzazioari eta instalazio- ei buruzko arauak eta helburuak betetzeko beha- rrezkoa den beste zeinahi ere.

14. artikulua. Sisteman sartzeko baldintzak eta ondorioak

1. Nafarroako liburutegi publikoen sisteman sarturiko liburutegi guztiak lege honetan ezarrita- koari eta Nafarroako Gobernuak emaniko errege- lamenduzko xedapenei lotuko zaizkie.

2. Liburutegi bat Nafarroako liburutegi publi- koen sisteman sartzen denean une horretan dauden laguntza zerbitzuez baliatzeko eskubidearen jabe egiten da.

3. Liburutegi publikoen sisteman sarturiko libu- ruregiak beharurik daude lankidetzarako progra- ma komunetan parte hartzera, bai eta eskatzen zaizkien datu bibliografiko eta estatistikoak bildu eta bidaltzera ere.

15. artikulua. Liburutegi publikoen sistemaren ikuskaritza

1. Nafarroako liburutegien sisteman sarturiko zentro guztiak beharurik daude Kultura Departa- mentuari ematera arau indardunak betetzen direla egiaztatzeko eskatzen dien informazio guztia; departamentuaren ikuskatzaileak liburutegira joa- nez gero, bertara sartu eta haien lana egiten utzi- ko diete.

2. Nafarroako liburutegien sisteman sarturiko liburutegi bat ikuskaturik, une horretan dauden legezko edo erregelamenduzko arauak ez direla betetzen ondorioztatzen bada, liburutegiaren titularrak Kultura Departamentuak ezarriko dituen neurri zuzentzaileak hartu beharko ditu. Hala egin ezean, liburutegiaren titularrak laguntza zerbitzuez baliatzeko eskubidea galduko du.

16. artikulua. Irakurketa publikoaren mapa.

1. Nafarroako Gobernuak Nafarroako irakurketa publikoaren mapa egin eta gaurkoturik edukiko du, bertan jasotzeko irakurketa publikoaren beharrak eta populazio gune bakoitzari dagokion zerbitzu mota. Irakurketa publikoaren mapa eta horien aldaketak Nafarroako Gobernuak eta Parlamentuak onartu beharko dituzte, Nafarroako Liburutegien Kontseiluari eta toki administrazioa ordezkatzen duten elkartei kontsulta egin eta haien balorazioak biltzen dituzten txostenak hartu ondoren.

2. Administrazio publikoek liburutegi ekipamendutan eta dokumentu funtsetan egiten dituzten inbertsioak irakurketa publikoaren mapan ezartzen diren aurreikuspenei eta irizpideei lotuko zaizkie.

3. Liburutegien kudeaketarako, Nafarroako liburutegien sistema irakurketa eremutan antolatuko da eta horietako bakoitzaren buru arduradun edo koordinatzaile bat arituko da. Eremuen zehaztapena eta mugak irakurketa publikoaren mapan agertuko dira.

17. artikulua. Laguntza zerbitzuak

1. Laguntza zerbitzuak Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren liburutegi guztientzako zerbitzuak sortzeko unitate zentral bat bezala daude pentsaturik. Modu zentralizatuan betetzen dituzte liburutegiko lan edo/eta eginkizunak, eta sistemako liburutegiei sostengu logistiko eta materiala ematen diete, baita aholku ere zerbitzua garatzen eta kudeatzen.

2. Laguntza zerbitzuen eginkizunak, besteak beste, hauexek izanen dira:

a) Aholkularitza eta laguntza funtsak eskuratzeko.

b) Liburutegiko ikerketa eta langileen prestakuntza etengabea eta birziklapena.

c) Prozesaturiko materialak liburutegietara igortzea.

d) Irakurketa publikoaren katalogo kolektiboa koordinatu eta kudeatzea.

e) Informazio bibliografikoko argitalpenen eta erreferentziarako dokumentuen edizioa.

f) Irakurketa sustatzeko eta erabiltzaileei prestakuntza eta aholku emateko kanpaina orokorrak gauzatzea, eta liburutegiei jarduera horietarako koordinazioa eta sostengua eskaintzea.

g) Liburutegiei sostengu tekniko eta informatikoa ematea.

h) Diziplina askotako aholkua eta laguntza ematea, hainbat gaitan: plangintza eta ebaluazioa, lokalak eta ekipamendua, segurtasuna, ergonomia eta abar.

i) Liburutegien sustapena.

18. artikulua. Langileak

1. Nafarroako liburutegi publikoen sistemako liburutegiek eta liburutegi zerbitzuek behar adina langile izan beharko dituzte, bai kopuruan, bai kalifikazioan eta bete beharreko eginkizunek eskatzen duten maila profesionalean, arlo honetako arau indardunekin eta irakurketa publikoaren mapan ezarritakoarekin bat.

2. Langileen baldintza profesionalak eta lanpostuak eskuratzeko modua kasu bakoitzean aplikatzeko den legerian aurreikusitakoari jarraikiz zehaztuko dira. Nolanahi ere, epaimahaiko kideetako batek, gutxienez, liburuzainen ordezkarria izan beharko du, eskaintako lanpostuaren maila berekoa edo goragokoa.

3. Nafarroako liburutegi publikoen sistemako liburutegietako langileen prestakuntza etengabea bermatuko da eta, horretarako, behar adina baliabide egokiak erabiliko dira.

II. KAPITULUA

Nafarroako Liburutegi Nagusia

19. artikulua. Definizioa

1. Nafarroako Liburutegi Nagusia Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren liburutegietan lehena da eta, beraz, sistema osatzen dutenen arteko lokailua, baita sistema horren eta gainerako liburutegi sistemen artekoa ere. Halaber, Nafarroako ondare bibliografikoaren arduradun gorena da. Haren betekizuna Nafarroako ekoizpen bibliografikoa eta euskararen hizkuntza eremuarekin zerikusia daukana bildu, gorde eta zabaltzea da, idatzizko ekoizpena barne –aldizkakoa izan zein ez–, ikusizkoa, soinuakoa eta multimedia, inpresoa edo beste edozein euskarritan dagoena. Obra bakoitzeko bi ale, gutxienez, bilduko ditu, edozein delarik ere erabilitako euskarria edo teknika.

2. Nafarroako Liburutegi Nagusia ondare bibliografikoaren kontserbazioaz eta zabalkundeaz arduratuko da. Ondare horrek hartzen ditu, aurrerago deskribaturiko obrez gain, Nafarroan

dauden balio historiko edo kultural bereziko obrak ere, ondare historiko eta kulturalari buruzko legeetan ezarritakoari jarraikiz.

3. Nafarroako Liburutegi Nagusiak, gure kulturaren gune bibliografikoetan behinenak, kontsulta eta ikerketa zientifikorako gune unibertsalaren izaerari eutsiko dio, dagozkion erosketen bidez.

20. artikulua. Egitura

Nafarroako Liburutegi Nagusia behar diren ataletan, unitatetan, departamentutan eta /edo bulegotan egituratuko da, erregelamenduzko xedapen egokien bitartez eta irakurketa publikoaren mapak ezartzen duenarekin bat.

21. artikulua. Eginkizunak

1. Nafarroako Liburutegi Nagusiak, liburutegi publikoari dagozkion eginkizunak ez ezik honakoak ere beteko ditu lurralde osoan:

a) Nafarroan argitaraturiko edo ekoiztutako obra guztiak eta euskararen hizkuntz eremuko lurraldeekin, edozein delarik arrazoia, zerikusia dutenak bildu, gorde eta zabaltzea. Horretarako, lege gordailua jasotzen duena da eta bide horretatik ailegatzen zaizkion Nafarroako obra bibliografikoak erosten ditu.

b) Nafarroarekin eta euskararen hizkuntz eremuko lurraldeekin, edozein delarik arrazoia, zerikusia duten obra guztiak, Nafarroari buruzkoak edo nafar egileek idatziak baina lege gordailuaren bidez sartu ez direnak, eskuratu, gorde eta zabaltzea.

c) Diziplina askotako funts orokorrak eta maila unibertsalekoak, jakintzaren arlo desberdinetan ikertzeko egokiak direnak, eskuratu, gorde eta zabaltzea.

d) Nafarroako ondare bibliografikoa osatzen duten obrak, nonahi daudelarik, sustatu, bildu, gorde eta horien kontserbazioaz eta zainketaz arduratzea.

e) Nafarroako bibliografia eta ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa prestatu, kudeatu eta aldizka zabaltzea, erabiltzaileen beharrek eskatzen duten euskarrietan, unitate desberdinekin koordinaturik, Nafarroako liburutegi publikoen sisteman dauden liburutegiei hautatze eta katalogatze lanak errazteko helburuarekin.

f) Nafarroako ondare bibliografikoa babesteko laguntza zerbitzuak ematea, bereziki zaharberritze, mikrofilmaz eta sobran edo errepikatutako dauden lanak kudeatzeko zerbitzuak.

g) Nafarroako liburutegi publikoen sistema barruan liburutegien arteko mailegua planifikatu eta koordinatzea.

h) Nafarroaren interesekoak diren datu bibliografikoen baseak garatu, mantendu eta eskuratzeko erraztea.

i) Nafarroako liburutegi publikoen sistema osatzen duten liburutegiak elkar lotzeko ekimenak aurrera ateratzea.

j) Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren jardunbidea egokiagoa izan dadin haren esku utzitako gainerako guztiak.

2. Nafarroako Liburutegi Nagusiak nazioarteko arau bibliografikoak bereganatuko ditu eta Nafarroako liburutegien sistema osoaren katalogazioa arautu behar dituztenak prestatuko ditu. Nafarroako Liburutegiak autoritateen katalogoa gainbegiratu, balidatu eta zerrenda bakar batean bateratuko du.

22. artikulua. Lege gordailuaren bulegoak

Nafarroako lege gordailuaren bulegoen eginkizuna da Nafarroan sortzen diren obra guztien ale kopuru zehatz bat bildu eta horiek gorde eta erabiltzaileen eskura jartzen duten zentroetara bidaltzea.

III. KAPITULUA

Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarea

23. artikulua. Definizioa

Nafarroako liburutegi publikoen multzo antolatua eta horiek koordinatu eta zuzentzen dituzten kudeaketa organoak dira Liburutegi Publikoen Sarea.

24. artikulua. Liburutegi publikoen sarea osatzen duten liburutegiak

1. Honakoak dira Liburutegi Publikoen Sareko partaide:

a) Titularitate publikoko liburutegi guztiak.

b) Sarean sartzen diren titularitate pribatuko liburutegi publiko guztiak, zentroaren titularraren adostasuna izanik eta behar den hitzarmena izenpetu baldin badute.

c) Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen estatuko titularitateko liburutegiak, horietan eragina duen estatuko araudia alde batera utzi gabe.

2. Salbuespen gisa, sarearen premiek eraginda eta titularraren ados baldin badago, irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeen liburutegiak ere sartu ahalko dira. Horien titularraren Nafarroako Gobernuaren denean beharrezkoa da Hezkuntza Departamentuak aldeko txostena ematea aurretik.

25. artikulua. Egitura

Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarearen barruan liburutegi eta liburutegi zerbitzu mota hauek daude, eginkizunen arabera:

- a) Eremuko liburutegi zentralak.
- b) Hiriko liburutegi zentralak.
- c) Herrietako liburutegiak.
- d) Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak.

26. artikulua. Eremuko liburutegi zentralak

Haren kokalekuan liburutegi publikoaren oinarritzko zerbitzuen kartera eskaintzeaz gain, dagoen eremuan liburutegiko zabalkunderako eta liburutegien arteko mailegurako euskarri moduan jarduten dutenak dira. Haren eremuko bildumaren erantzulea da eta tokian tokikoaz gaindiko lanak eta liburutegi egonkorrik ez duten herriei buruzkoak erosi eta gordetzeko betebeharra du.

Hedadura edo konplexutasuna dela-eta, eremu bat zenbait aldetan banaturik dagoenean, horietako bakoitzean liburutegi bat egonen da, lehenago deskribaturiko eginkizunak bete ditzan.

27. artikulua. Hiriko liburutegi zentralak

1. Hiriko liburutegi zentralak udalerriko gainerako liburutegiak eta liburutegi zabalkunderako zerbitzuak koordinatzen dituzte, irakurketa publikoaren mapak ezarritako moduan, eta aholkuak eta laguntza ematen dizkiete.

2. Iruñeko hirian liburutegi batek egon beharko du, gutxienez, hiriko liburutegi zentralari eskatzen zaizkien baldintzak eta dituzten eginkizunak bete behar dituena, Nafarroako Liburutegi Nagusiak liburutegi zentral gisa egin behar duen koordinazio lana baztertu gabe.

28. artikulua. Herrietako liburutegiak

Irakurketa publikoaren mapan ezarritako baldintza gutxienekoak bete eta dauden herrietan informazio eta irakurketa publikoaren zerbitzua ematen dutenak dira. 1.500 biztanletik gorako herri guztiek liburutegia izan beharko dute.

29. artikulua. Liburutegi zerbitzu ibiltariak

Eremuko liburutegi zentral baten edo hiriko liburutegi zentral baten menpeko diren liburutegi zerbitzu ibiltarien helburua da irakurketa publikoa eskaintzea zerbitzu egonkorrik ez dagoen tokietan.

30. artikulua. Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak

Liburutegi egonkorrik ez dagoen tokietan edo zailtasunak dituzten pertsona edo taldeentzat irakurketa publikoaren zerbitzua eskaintzen dutenak dira.

Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak mota askotakoak izan daitezke, erantzun beharreko

premien, erabiltzaileen ezaugarrien eta abarren arabera: zerbitzu ibiltariak, teleliburutegia, mailegu kolektiboak...

Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak Nafarroako liburutegi publikoen sistemako edozein liburutegiren menpe egon daitezke baina, betiere, eremuko liburutegi zentralak koordinaturik beteko dira.

IV. KAPITULUA

Unibertsitateetako liburutegiak, irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastexeeetakoak eta espezializatuak

31. artikulua. Unibertsitateetako liburutegiak

1. Unibertsitateetako liburutegiek funts bibliografiko espezializatuak biltzen dituzte eta zerbitzua ematen diete unibertsitateko komunitateari, ikertzaileei eta, unibertsitateak baimena ematen badu, hala eskatzen duten partikularrei.

2. Unibertsitateetako liburutegiak gainerako liburutegi publikoen sistemarekin koordinatzen dira Nafarroako Liburutegi Nagusiaren bidez, katalogaziorako, liburutegien arteko mailegurako eta balio historiko edo kultural nabarmeneko funtsak babesteko, alde batera utzi gabe bestelako koordinazio bide batzuk, zerbitzu komunak ematearren beste liburutegi batzuekin ezarri daitezkeenak.

32. artikulua. Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastexeeetako liburutegiak

1. Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastexeeetako liburutegiak oinarritzko baliabide-zentroak dira, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza eta curriculum proiektuetan sartutakoak; eginkizun pedagogikoak betetzeko behar den materiala eskura jartzan dute, kultura bereganatzeko lagungarri dira eta ikasleei liburutegiko funtsak erabiltzen erakusten diete, haien prestakuntza eta aisialdia osatu eta zabaltzeko bitartekoak ematearekin batera. Beraz, betekizun funtsezkoa du ikasleen ikasketekin, irakaskuntza lanekin eta ikastetxearen gizarte eta kultura ingurunearekin loturik.

2. Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe guztietan jarriko da liburutegi bat, irakaskuntzaren parte bezala, hezkuntza komunitate osoarentzat irekia eta legeak emandako eginkizunak betetzeko behar adina baliabide –dokumentalak, tokiaren aldetikoak eta langileenak– izanen dituena.

3. Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetako liburutegien antolaketa, jardunbidea, jarduerak eta finantziarioa erregelamendu batek arautuko ditu berariaz.

4. Irakasleei laguntzeko zentroek programatu-ko dute eskola liburutegi publikoek arduratuko diren irakasleen prestakuntza berezia, bai eta eskola liburutegia oinarrizko baliabide-zentro gisa erabiltzearen inguruan irakasle guztiei eman beharreko prestakuntza orokorra ere.

33. artikulua. Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako liburutegien eta liburutegi publiko- en arteko lotura

1. Liburutegi publikoek laguntza emanen diete eskola liburutegiei liburutegien arteko maileguaren bitartez. Halaber, aholkularitza tekniko, erabiltzaileentzako prestakuntza, eta elkarren arteko programetan parte hartzeko aukera ere emanen diete.

2. Nafarroako liburutegi publikoek sistemaren eta eskola liburutegien eta irakasleei laguntzeko zentroen arteko harremanak erregelamenduz ezarriko dira.

34. artikulua. Liburutegi espezializatuak

1. Funts itxia dutenak dira, batez ere jakintza- ren arlo berezi baten barrenean.

2. Liburutegi espezializatuak, titularitate publi-ko zein pribatukoak, zerbitzu publikoa ematen dute, beren mugekin, eta Nafarroako Liburutegi Nagusiaren bitartez koordinatzen dira gainerako liburutegien sistemarekin.

III. TITULUA

Nafarroako Liburutegien Kontseilua

35. artikulua. Definizioa eta kideak

1. Nafarroako Liburutegien Kontseilua Nafarroako Gobernuaren kontsulta eta aholku organoa da Nafarroako liburutegi publikoek sistemarekin zerikusia duten gaitan. Horretarako, txostenak luzatuko ditu, aginduzkoak eta lotesleak.

2. Kontseiluko kideak zein diren erregelamenduz zehaztuko da eta, ordezkariari dagokionez, irakurketa publikoarekin modu bateko zein beste-ko harremana duten sektore guztiek parte hartuko dute bertan.

36. artikulua. Eginkizunak

1. Nafarroako Liburutegien Kontseiluak honako eginkizun hauek izanen ditu, erregelamenduz ezarri ahal direnez gain:

a) Txostenak ematea liburutegien eta liburutegi zerbitzuen arloko xedapen orokorren proiektuei buruz, irakurketa publikoaren mapari buruz, zerbi-

tzen karterari buruz eta liburutegi publikoek sistemarako plan estrategikoari buruz.

b) Nafarroako liburutegi publikoek sistemaren antolaketari, jardunbideari eta koordinazioari begira ekimenak eta hobekuntza planak proposatzea.

c) Nafarroako Gobernuari aholkuak ematea lege honen xede diren gaitan.

2. Nafarroako Liburutegien Kontseilua behar den guztietan bilduko da eta, gutxienez, sei hila- betean behin. Haren jardunbidea erregelamendu bidez arautuko da.

Xedapen gehigarriak

Lehendabizikoa. Lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, gehienez, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Nafarroako irakurketa publikoaren mapa egin beharko du.

Bigarrena. Nafarroako hurrengo aurrekontu orokorretan aurreikusiko dira liburutegiak eraiki eta egokitzeko eta langileak hartzeko behar diren baliabideak; betiere, eman beharreko zerbitzuaren nondik norakoak eta toki entitateen ahalmen finantzario eta ekonomikoa kontuan hartuko dira.

Hirugarrena. Lege honek indarra hartzen duenean jardunean dauden liburutegi publikoak ofizioz sartuko dira Nafarroako liburutegi publikoek sistemaren.

Xedapen iragankorrak

Lehendabizikoa. Lege honi lotu behar zaizkion egungo liburutegiak legeak indarra hartu eta hiru urteko epean, gehienez, egokitu beharko dira.

Bigarrena. Egun 1.500 biztanletik beherako herrietan dauden eta Nafarroako Liburutegi Publikoek Sarekoak diren liburutegi publikoek lehengo estatusa atxikiko dute eta beraz, legeari lotuko zaizkio gainerako liburutegi publikoak bezalaxe. Horrek ez du eragozten liburutegi horietakoren bat birmoldatu edo liburutegi zabalkunderako zerbitzu alternatiboekin ordeztu beharra.

Azken xedapenak

Lehendabizikoa. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio lege hau betetzeko behar diren arauko xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako liburutegien sistema arautzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak Nafarroako liburutegien sistema arautzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Nafarroako liburutegien sistema arautzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Nafarroako liburutegien sistema arautzen duen Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENEA

Gizarte demokratiko baten askatasuna, garapena eta aurrerapena erdiesteko bidea herritarrak beren eskubideez baliatzen hezte eta informazioa, jakintza eta kultura libreki eskuratzen laguntzea da, nor bere erabakiak har ditzan eta gizartearen bizitzan paper aktiboa izan dezan. Informazioa izatea eta menpean edukitzea integrazio ekonomiko, sozial eta kulturalerako faktorea da. Beraz, komeni da antolatu eta bermatzea herritarrek informazioa libreki eskura izatea.

UNESCOren iritzia da liburutegi publikoa hezkuntza, kultura eta informaziorako indar bizia dela, bakea, ongizatea eta kulturen arteko elkarriketa lortzeko eragile funtsezkoa. UNESCOk 1994an liburutegi publikoei buruz emaniko manifestuak ezartzen du liburutegi publikoa erabiltzaileei mota guztietako jakintza eta informazioa ematen dien informazio gune lokala dela.

Liburutegi publikoaren oinarrizko lanetako bat da herritarrei eskaintzea ezinbesteko eta oinarrizko informazioa, hura guztien eskura jarriz, edozein delarik ere prestakuntza maila, gizarte egoera edo bizitokia. Horrela, liburutegia lagungarri gertatzen da informazioaren gizarte demokratiko, ireki eta gardena eraikitzeko bidean.

Komunikazioen garapen teknologikoari esker informazio eta kultur bolumena etengabe handitu da sareetan edo bestelako euskarri digitaletan. Liburutegi publikoek bermatu behar dute horiek eskuratzea, usadiozko komunikabideen eta berrien arteko zubi lana eginez.

Liburutegi publikoaren gaineko erantzukizuna tokiko eta nazioko administrazioena da.

Berariazko legeri baten euskarria eduki behar du eta funts publikoen bidez finantzatu.

Erantzukizun horretaz jabeturik, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak liburutegi publikoak sortzen eta mantentzen lagundu izan du. 1950eko abuztuaren 12an Nafarroako Foru Diputazioak Liburutegi Publikoen Sarea sortzeko erabakia hartu zuen. Orduz geroztik, udalekin lan-kidetza hitzarmenak izenpetuz, liburutegien kopurua handitzen joan da, baina epe luzean plan-gintza baten falta sumatu da, baita Nafarroako geografia osoan liburutegi zerbitzuaren garapen orkatua antolatzeko irizpide orokorra ere.

Nafarroako liburutegi zerbitzua garatzeko esparrua eta, horren barrenean, liburutegi publiko-arena, berariazko lege baten bidez zehazteko garaia da, eta horren bidez printzipio orokorrak taxutu eta administrazioen zerbitzu estandarrak eta erantzukizun mailak ezarri.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.9 artikulua dio Nafarroak erabateko eskumena duela "Historia, arte, monumentu, arkitektura, arkeologia eta zientzia-ondarea, espazioaren eta espolioaren aurka ondare horren defentsarako Estatuak dituen ahalmenak deusetan ukatu gabe."

Lege Organiko horren 44.10 artikulua, berriz, ezartzen du Nafarroak erabateko eskumena duela, halaber, honen gainean: "Agiritegiak, liburutegiak, museoak, hemerrotekak eta Estatuaren titulartasunekoak ez diren kultur-gordailurako gainerako zentroak."

Bestalde, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legeak, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 26.1

artikuluaren b) idatz-zatian zehazten du 5.000 biztanletik gorako udalerriek honako zerbitzu hauek eman beharko dituztela: parke publikoa, liburutegi publikoa, azoka eta hondakinen tratamendua.”

Beraz, Nafarroak dituen eskumen erabatekoek baliatuz, bidezkoa da liburutegiei buruzko lege bat onestea, liburutegien zerbitzua zehaztu eta arautzeko. Lege horrek ezarri beharko ditu, halaber, zerbitzu horrek eduki beharreko ezaugarriak eta egitura, zertarako eta bi alderdi hauek bermatzeko: zerbitzua bera eta Nafarroako herritarrek informazioa publikoki eskuratzeko eta irakurketarako duten eskubidea egiaz erabili ahal izatea.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Legearen xedea

Legearen xedea da Nafarroako liburutegien sistemaren oinarriak eta funtsezko egiturak ezartzea eta informazioa eta irakurketa publikoa Foru Komunitateko herritar guztien eskura jartzea.

2. artikulua. Liburutegiaren kontzeptua.

1. Liburutegia da, lege honen ondorioetarako, liburuez, aldizkako argitalpenez, grabatuez, mapez, soinu, ikus-entzunezko eta multimedia grabazioez, dokumentazio grafikoez eta bestelako material bibliografikoez, eskuizkribuez, inprimakiez edo edozein euskarritan erreproduziturikoez osaturiko edozein multzo antolatu, baldin eta horren xedea bada dokumentu horiek bildu, gorde eta zabaltzea, baita pertsona guztien eskura jartzea ere, bitarteko egokiak –teknika, espazio eta langileen arloetakoak– erabiliz informazioa, jakintza, ikerketa, hezkuntza, kultura eta aisia helarazteko.

3. artikulua. Bildumaren kontzeptua

Lege honen ondorioetarako, bilduma da ondarearen zein kulturaren ikuspuntutik interes berezia duen edozein funts. Historia eta kultur ondarearen arloko legeek ezarriko dute bildumen zehaztapena eta babesa.

4. artikulua. Aplikazio esparrua.

Lege honen aplikazio esparruak honakoak hartzen ditu:

1. Nafarroako liburutegien sisteman sarturik dauden liburutegiak.

2. Kultur balio berezia duten liburutegiak eta bildumak, publikoak zein pribatuak, historia eta kultur ondarearen arloko legeriarekin bat.

5. artikulua. Nafarroako liburutegien sistema

Nafarroan dauden liburutegi zerbitzuen multzo antolatua da. Nafarroako liburutegien sistema honakoek osaturik dago:

A. Nafarroako liburutegi publikoen sistema.

B. Unibertsitateetako liburutegiak, eskoletako eta beste ikastetxeetako liburutegiak, titularitate publikoko liburutegi espezializatuak eta titularitate pribatuko liburutegi espezializatuak, baldin eta hitzarmen baten bidez beren funtsak jendeak erabiltzeko moduan jartzen badituzte.

6. artikulua. Sistema globalizatzaile eta osagarria

Nafarroako liburutegien sistema liburutegi baliabideen unitate bat da, pertsona guztien behar orokorreari nola erabiltzaile batzuen behar zehatzei erantzuteko.

Nafarroan dauden liburutegi baliabideei ahalik eta etekin handiena ateratzeko, Nafarroako liburutegien sistemaren esparru bakoitzeko liburutegiek lankidetzarako bideak ezarriko dituzte, hala bada, egokitzat jotzen diren hitzarmenen bitartez.

II. TITULUA

Nafarroako liburutegi publikoen sistema

I. KAPITULUA

Definizioa, esparrua eta egitura

7. artikulua. Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren definizioa

Nafarroako liburutegi publikoen baliabideen multzo antolatua da, irakurketa mapan ezarritako-ekin bat heldu dena, baliabide horiek liburutegiko zerbitzuen kartera egin eta herritar guztien eskura jartzeko behar diren bitartekoak ere barne hartzen dituztela.

8. artikulua. Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren kudeaketarako ildoak

Eremu geografikoen arabera deszentralizazioa eta partaidetza dira Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren kudeaketaren ildo nagusiak.

9. artikulua. Egitura

Honako hauek dira Nafarroako liburutegi publikoen sistema osatzen dutenak:

1. Nafarroako Liburutegia
2. Liburutegi Publikoen Sarea.
3. Laguntza zerbitzuak.

10. artikulua. Liburutegi publikoaren kontzeptua.

Liburutegi publikoak dira funts orokorra izan, kultura, hezkuntza, josteta eta gizarte mailetako informazio zerbitzuak –baita kontsulta eta mailegukoak ere– eskaini, eta herritar guztien eskura daudenak, adina, arraza, sexua, erlijioa, nazionalitatea edo gizarte maila kontuan hartu gabe. Horrez gain, ohiko zerbitzuak eta materialak, arrazoiren batengatik, erabiltzerik ez duten erabiltzaileei zerbitzu eta material berariazkoak eskaini beharko dizkiete, adibidez hizkuntza gutxiengoan, ezgaituen edo ospitaleetan eta presondegiatan daudenen kasuan.

Liburutegi publikoak zerbitzu bereziak eskainiko dizkiete helduei eta haurrei. Era berean, kontuan hartuko du gure erkidegoko errealitate sozio-linguistikoa, eta zerbitzuak euskaraz eta gaztelaniaz emanen ditu, Euskararen Legeak, abenduaren 15eko 18/1986 Legeak, alegia, araututakoarekin bat.

Liburutegi publikoek eskainiko dituzten doako zerbitzuak, gutxienez, hauexek izanen dira: informazio bibliografikoa, orokorra zein komunitatekoa, irakurketa eta kontsulta aretoan, mailegua eta erabiltzaileen prestakuntza.

11. artikulua. Zerbitzuen kartera

Zerbitzuen kartera da Nafarroako liburutegi publikoen sistemak eskaintzen dituen liburutegi zerbitzuen multzoa, zeinek zeinentzat ematen dituen adierazirik. Zerbitzuen kartera horretan herritarrei zuzenduriko liburutegi zerbitzuak deskribatzen dira, eta zehaztu egiten da zein den, horiek betetzeko, administrazioak hartzen duen konpromisoa, nahikotasun eta kalitate maila dagokienez.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta Nafarroako Liburutegien Kontseiluari kontsulta egin ondoren, liburutegi publikoen sistemaren zerbitzuen kartera garatu, aztertu eta gaurkotuko du eta oinarrizko zerbitzuak Foru Komunitateko liburutegi publiko guztietan ematen direla bermatuko du.

12. artikulua. Irakurketa publikoaren mapa

Irakurketa publikoaren mapa liburutegiko plan-gintzarako tresna bat da, eta bertan jasotzen dira Nafarroako liburutegi publikoak, irakurketa publikoaren premiak eta populazio guneei dagozkien zerbitzu moduluak.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak onetsi eta gaurkoturik edukiko du Nafarroako irakurketa publikoaren mapa.

Parte hartzen duten administrazioen eskumena izanen da 1.500 biztanletik gorako herrietan liburutegi egonkorren zerbitzua bermatzea.

Administrazio horien liburutegi ekipamendutan eta funts dokumentaletan eginiko inbertsioak irakurketa publikoaren mapan ezarritako irizpideei lotuko zaizkie.

Nafarroako Gobernuak egingen ditu irakurketa-aren maparen aldaketak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta Nafarroako Liburutegien Kontseiluari kontsulta egon ondoren.

13. artikulua. Irakurketa publikoaren sistema-ko langileak

Irakurketa publikoaren sistemako zentroek eta liburutegiek behar adina langile izan beharko dituzte, bai kopuruan, bai lanpostuak eskatzen duen kalifikazio teknikoan.

Langileen baldintza profesionalak eta lanpostuak eskuratzeko modua erregelamenduz ezarriko dira. Nolanahi ere, liburutegi publikoetako langileen ingurukoa irakurketa publikoaren mapan ezarritakoari lotuko zaio.

II. KAPITULUA Nafarroako Liburutegia

14. artikulua. Definizioa

1. Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren liburutegietan lehena da eta Nafarroako ondare bibliografikoaren ardura-dun gorenena. Haren betekizuna Nafarroako ekoizpen bibliografikoa bildu, gorde eta zabaltzea da, idatzizko ekoizpena, –aldizkakoa izan ez, ikusizkoa, soinuakoa eta multimedia, inpresoa edo beste edozein euskarritan dagoena barne.

Ondare bibliografikoaren kontserbazioaz eta zabalkundeaz arduratuko da. Ondare horrek hartzen ditu, aurrerago deskribaturiko obrez gain, Nafarroan dauden balio historiko edo kultural bereziko obrak ere, ondare historiko eta kulturalari buruzko legeetan ezarritakoari jarraikiz.

Nafarroako liburutegi publikoen sistemako liburutegietan lehena denez, sistema osoari laguntza emateko behar dituen funtsak eta zerbitzuak izanen ditu.

Nafarroako liburutegien sistema osatzen dutenen arteko lokailua da, baita sistema horren eta Espainiako liburutegien sistemaren eta gainerako liburutegi sistemen artekoa ere.

15. artikulua. Eginkizunak

Liburutegi publikoari dagozkion eginkizunak ez ezik honakoak ere beteko ditu, Nafarroako liburutegi nagusia den aldetik:

a) Nafarroan argitaraturiko edo ekoiztutako obra guztiak bildu, gorde eta zabaltzea. Horretarako, lege gordailua jasotzen duena da.

b) Nafarroarekin zerikusia duten obra guztiak, Nafarroari buruzkoak edo nafar egileek idatziak baina lege gordailuaren bidez sartu ez direnak, eskuratu, gorde eta zabaltzea.

c) Nafarroako Bibliografia egitea.

d) Nafarroako ondare bibliografikoaren kontserbazioaz arduratu eta ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa Nafarroan prestatzeko lanak koordinatzea.

e) Nafarroako liburutegi publikoen sistema barruan liburutegien arteko mailegua planifikatu eta koordinatzea.

f) Nafarroaren interesekoak diren datu bibliografikoen baseak garatu eta mantentzea.

g) Nafarroako liburutegi publikoen sistema osatzen duten liburutegiak elkar lotzeko ekimenak aurrera ateratzea.

III. KAPITULUA Liburutegi Publikoen Sarea

16. artikulua. Definizioa

Foru Komunitateko liburutegi publikoen multzo antolatua eta horiek koordinatu eta zuzentzen dituzten kudeaketa organoak dira Liburutegi Publikoen Sarea.

17. artikulua. Irakurketa eremuak

Liburutegien kudeaketarako, Liburutegi Publikoen Sarea irakurketa eremutan banaturik dago, eta horietako bakoitzaren buru arduradun edo koordinatzaile bat izanen da. Eremu horien definizioa eta mugak irakurketa publikoaren mapan egonen dira ezarriak.

18. artikulua. Liburutegi motak

Liburutegien Sareak bi liburutegi mota ditu: eremuko liburutegi zentralak eta herrietako liburutegiak.

19. artikulua. Eremuko liburutegi zentralak

Haren kokalekuan liburutegi publikoaren oinarriko zerbitzuen kartera eskaintzeaz gain, dagozkion eremuan liburutegiko zabalkunderako eta liburutegien arteko mailegurako euskarri moduan jarduten dutenak dira. Haren eremuko bildumaren

erantzulea da eta tokian tokikoaz gaindiko lanak eta liburutegi egonkorrik ez duten herriei buruzkoak erosi eta gordetzeko betebeharra du.

Hedadura edo konplexutasuna dela-eta, eremu bat zenbait aldetan banaturik dagoenean, horietako bakoitzean liburutegi bat egonen da, lehenago deskribaturiko eginkizunak bete ditzan.

20. artikulua. Herrietako liburutegiak

Irakurketa publikoaren mapan ezarritako baldintza gutxienekoak bete eta dauden herrietan informazio eta irakurketa publikoaren zerbitzua ematen dutenak dira.

20.000 biztanletik gorako herri guztietan hiri-liburutegi zentral bana egon beharko da, liburutegien plangintzak ezarritako gainerako zerbitzu guneekin edo liburutegiekin koordinaturik.

21. artikulua. Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak

Liburutegi egonkorrik ez dagoen tokietan edo zailtasunak dituzten persona edo taldeentzat irakurketa publikoaren zerbitzua eskaintzen dutenak dira.

Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak mota askotakoak izan daitezke, erantzun beharreko premien, erabiltzaileen ezaugarrien eta abarren arabera: zerbitzu ibiltariak, teleliburutegia, mailegu kolektiboak...

Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak Nafarroako liburutegi publikoen sistemako edozein liburutegiren menpe egon daitezke baina, betiere, eremuko liburutegi zentralak koordinaturik beteko dira.

IV. KAPITULUA Laguntza zerbitzuak

22. artikulua. Definizioa eta helburua

Laguntza zerbitzuak Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren liburutegi guztientzako zerbitzuak sortzeko unitate zentral bat bezala daude pentsaturik. Modu zentralizatuan betetzen dituzte liburutegiko lan eta eginkizunak, eta sistemako liburutegiei sostengu logistikoa eta materiala ematen diete, baita aholku ere zerbitzua garatzen eta kudeatzen.

23. artikulua. Eginkizunak

Laguntza zerbitzuen eginkizunak, besteak beste, hauexek izanen dira:

a) Funtsak eskuratzeko hautaketa zentralizatu/ proposamena.

b) Materialak erosi eta katalogatzea.

c) Prozesaturiko materialak liburutegietara igortzea.

d) Irakurketa publikoaren katalogo kolektiboa koordinatu eta kudeatzea.

e) Informazio bibliografikoko argitalpenen eta erreferentziarako dokumentuen edizioa.

f) Irakurketa sustatzeko eta erabiltzaileei pres-takuntza eta aholku emateko kanpaina orokorrak gauzatzeko, eta liburutegiei jarduera horietarako koordinazioa eta sostengua eskaintzea.

g) Liburutegiei sostengu tekniko eta informati-koa ematea.

h) Diziplina askotako aholkua eta laguntza ematea, hainbat gaitan: plangintza eta ebalua-zioa, lokalak eta ekipamendua, segurtasuna, ergonomia eta abar.

i) Kudeaketa administratiboa eta langileena.

V. KAPITULUA

Administrazio publikoen eskumenak

24. artikulua. Eskumenen izaera

Nafarroako Gobernuarena eta toki administra-zioena, biena da Nafarroako liburutegien sistema-ren gaineko erantzukizuna. Administrazio horien jarduketa zenbait printzipiotan oinarrituko da –koordinazioa, eraginkortasuna, ekonomia eta lege honetan ezartzen diren eskumen esparruen errespetua– eta halaber, lege hau garatuko duten xedapenetan eta bi entitateek helburu horrekin izenpetuko dituzten hitzarmenetan.

25. artikulua. Nafarroako Gobernuaren esku-menak

Nafarroako Gobernuak honako eskumen hauek izanen ditu:

1) Dagokion toki administrazioarekin batera, liburutegi egonkorrak sortu eta mantentzea 1.500 biztanletik gorako Nafarroako herri guztietan.

2) 1.500 biztanletik beherako herrietan, liburu-tegi egonkorrik ez dutenetan, bizi direnen eskura jartzea irakurketa publikoaz baliatzeko aukera.

3) Irakurketa publikoarekin zerikusia duten alderdiak, bereziki ondokoak, arautu eta garatu behar dituzten erregelamenduak ematea:

a) Liburutegien kudeaketaren oinarri orokorrak.

b) Azpiegituren baldintza teknikoak.

c) Funtsen katalogazioa eta sailkapena.

d) Irakurketa publikoaren katalogo kolektiboa-ren mantentze lana.

e) Irakurketa eremuen eta horiek osatzen dituzten liburutegien koordinazioa.

f) Langileak

4) Irakurketa publikoaren mapa egin eta gaur-koturik edukitzea.

5) Irakurketa publikoaren sistema osatzen duten zentroak eta liburutegiak ikuskatu eta zerbi-tzuen kartera betetzen ote den aztertzea.

6) Liburutegi zerbitzuen plan estrategikoa bost urtean taxutzea berriz, bertan garatzeko liburutegi zerbitzuaren jardueretan eta hura ematean segitu beharreko jarraibideak, epe motz eta luzerako hel-buruak zehazteko eta horiek erdiesteko behar diren baliabideak planifikatzeko, irakurketa publi-koaren mapak eta kudeaketarako gainerako tres-nek zedarrituriko esparruan.

26. artikulua. Toki administrazioen eskume-nak:

1) Liburutegi egonkorrak sortu eta mantentzea 1.500 biztanletik gorako herrietan, irakurketa publikoaren mapak eta Nafarroako Gobernuarekin izenpetuko duten hitzarmenak ezarritako moduan.

2) 1.500 biztanletik gorako herrietan, liburutegi egonkorrik ez dutenetan, parte hartzea, ezarriko den neurrian, irakurketa publikoaren zerbitzua ematen.

3) Irakurketa publikoa koordinatu eta sustatzea udalerrian, horretarako baliabideak kontsignatuz aurrekontuetako kontusailetan.

4) Kultur politika koordinatua eta integratzailea taxutzea, zeinetan liburutegiak komunitatearen funtsezko kultur eragileetako baten papera beteko duen.

27. artikulua. Eskumenen garapena.

Eskumenen garapena, zehaztapen guztiak barne, irakurketa publikoaren mapan aurreikusiko da, eta Nafarroako Gobernuak toki administrazio-ekin izenpetuko dituen hitzarmenek bilduko dute.

III. TITULUA

Unibertsitateetako liburutegiak, eskola liburu-tegiak, bestelako ikastetxeetako liburutegiak (irakaskuntza ez-unibersitarioko ikastetxeeta-koak) eta liburutegi espezializatuak

28. artikulua. Unibertsitateetako liburutegiak

Unibertsitateko liburutegia da unibertsitateko komunitateari jakintza eskuratu, transmititu eta ezagutzan aurrera egitea ahalbidetzen dion era-kundea.

Informazioa eskuratzeko, katalogoziorako, liburutegiaren arteko mailegurako, langileak prestatzeko eta balio historiko edo kultural nabarmeneko funtsak babesteko, Unibertsitateetako liburutegiak liburutegi publikoen sistemaren gainerakoekin koordinatuko dira, Nafarroako Liburutegiaren bidez.

29. artikulua. Eskolako liburutegiak

Eskolako liburutegiak oinarrizko baliabide-zentroak dira, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza eta curriculum proiektuetan erabat txertatuak, eta informazio zerbitzu aktiboa ere badira, betekizun funtsezkoa duena ikasleen ikasketekin, irakaskuntza lanekin eta ikastetxearen gizarte eta kultura ingurunearekin loturik.

Hezkuntza sistemari buruzko lege organikoak ezartzen du ikastetxe guztietan egon behar dela liburutegi bat, irakaskuntzaren parte bezala, ikasle eta irakasleei irekia eta legeak emandako eginkizunak betetzeko behar adinako baliabide –dokumentalak, tokiaren aldetikoak zein langileenak– izanen dituena.

Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetako liburutegiaren antolaketa, jardunbidea, jarduerak eta finantziak erregelamendu batek arautuko ditu berariaz.

30. artikulua. Irakasleei laguntzeko zentroak baliabide zentro gisa

Irakasleei laguntzeko zentroei buruzko araudiak ezartzen du baliabide didaktikoetarako oinarriko zentroak direla; baliabide horien artean daude, besteak beste, ikastetxeetan curriculumak garatzeko materialen eta funts dokumentalen erabilerrako informazioa eta aholkularitza eta berrikuntza didaktikoen zabalkundea.

Bestalde, irakasleei laguntzeko zentroak dira hezkuntza administrazioak unibertsitateko beste jarduneko irakasleen prestakuntzarako aurreikusiriko erakundeak. Hortaz, zentro horiek izanen dira eskola liburutegi publikoek arduratuko diren irakasleei prestakuntza berezia emanen dietenak, bai eta eskola liburutegia oinarrizko baliabide-zentro gisa erabiltzearen inguruan irakasle guztiei eman beharreko prestakuntza orokorra ere.

31. artikulua. Eskola liburutegiaren eta liburutegi publikoaren arteko lotura

Liburutegi publikoek laguntza emanen diete eskola liburutegiei liburutegiaren arteko maileguaren bitartez. Halaber, aholkularitza teknikoak, erabiltzaileentzako prestakuntza, eta elkarren arteko

programetan parte hartzeko aukera ere emanen diete.

Nafarroako liburutegi publikoaren sistemaren eta Foru Komunitateko eskola liburutegiaren eta irakasleei laguntzeko zentroen arteko harremanak hitzarmen bidez ezarri eta erregelamenduz garrantzitsuak dira.

32. artikulua. Liburutegi espezializatuak

Funts berezia dutenak dira, batez ere jakintza-aren arlo berezi baten barrenean.

Liburutegi espezializatuak Nafarroako Liburutegiaren bitartez koordinatzen dira gainerako liburutegiaren sistemarekin.

IV. TITULUA

Nafarroako Liburutegiaren Kontseilua

33. artikulua. Definizioa

Nafarroako Liburutegiaren Kontseilua Nafarroako Gobernuaren kontsulta eta aholku organoa da Nafarroako liburutegiaren inguruko gaietan.

34. artikulua. Kontseiluko kideak

Nafarroako Liburutegiaren Kontseiluan lehendakaria, lehendakariordea eta hamahiru kide egonen dira.

Lehendakaria Hezkuntza eta Kultura kontseilaria izanen da.

Lehendakariordea Kultura zuzendari nagusia izanen da.

Hauexek izanen dira kideak: liburutegi publikoaren sistemaren zuzendaria, Nafarroako Liburutegiaren zuzendaria, liburutegiaren sareko zuzendaria eta honako ordezkariak: unibertsitateetako liburutegiak, eskola liburutegiak, liburutegi espezializatuak, liburutegietako profesionalen elkarteak, erabiltzaileen elkarteak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, Parlamentuko Kultura Batzordea, Nafarroako Kultura Kontseilua eta Nafarroan, kulturaren munduan, nabarmenak diren pertsonak.

35. artikulua. Eginkizunak

Nafarroako Liburutegiaren Kontseiluak honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Txostenak ematea liburutegiaren arloko proiektuei buruz, irakurketa publikoaren mapari buruz, zerbitzuen karterari buruz eta liburutegi publikoaren sistemarako plan estrategikoari buruz.

b) Nafarroako liburutegiaren sistemaren antolaketari, jardunbideari eta koordinazioari begira ekimenak eta hobekuntza planak proposatzea.

c) Nafarroako Gobernuari aholkuak ematea lege honen xede diren gaietan.

36. artikulua. Jardunbidea

Nafarroako Liburutegien Kontseilua behar den guztietan bilduko da eta, gutxienez, sei hilabete behin. Haren jardunbidea erregelamendu bidez arautuko da.

Xedapen iragankorrak

Lehendabizikoa. Lege honi lotu behar zaizkion egungo liburutegiak legeak indarra hartu eta bost urteko epean, gehienez, egokitu beharko dira.

Bigarrena. Egun 1.500 biztanletik beherako herrietan dauden eta Nafarroako liburutegi publi-

koen sarekoak diren liburutegi publikoek lehengo estatusa atxikiko dute eta beraz, legeari lotuko zaizkio gainerako liburutegi publikoak bezalaxe. Horrek ez du eragozten liburutegi horietakoren bat birmoldatu edo liburutegi zabalkunderako zerbitzu alternatiboekin ordeztu beharra.

Azken xedapenak

Lehendabizikoa. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio lege hau betetzeko behar diren arauzko xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 8an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko maiatzaren 17ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu Foru Lege proposamena 2001eko irailaren 24ko 93.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2002ko apirilaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Industrializazio Plana bidal dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Industrializazio Plana bidal dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 8n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatuari jarraikiz, honako mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran tramitatzeko.

Joan zen irailean Nafarroako Gobernuak asmo handiko industrializazio plana onartu zuen Nafarroarako. Izan ere, Industria Departamentuak Nafarroan industriarako lurzorua sortzea aurreikusi du, 2.000 milioi euroko baliokoa. Bete asmo den lurzoru horren erdia Iruñean eta Iruñerrian dago.

Zehazki, sustapen publikoko hogeitaz industrialde sortu edo handitzea aurreikusi da, hau da, 3,7 milioi metro koadro gehiago guztira, egun erabilgarri dagoen milioi bat metro koadrori gehitu beharrekoak. Plana 2001etik 2005era bitarte egiteko pentsaturik badago ere, Industria kontseilariak adierazi zuen lurzoru horren % 75 erabiltze-

ko moduan egonen dela 2003rako. Sortuko diren industrialde berriak hauexek dira:

- Elordi-Ultzama (30.000 m²)
- Larraun (zehaztu gabe)
- Altsasu-Urdiain (306.000 m²)
- Viana (443.000 m²)
- Irunberri (20.000 m² inguru)
- Burgi (50.000 m² inguru)
- Tafalla-Erriberri (200.000 m²)
- Funes (50.000 m² inguru)
- Rocaforte (daturik gabe)
- Cierzo mendiak (100.000 m²)
- Las Labradas (300.000 m²)
- Buñuel (80.000 m²)
- Cadreita (80.000 m²)
- Caparroso (50.000 m²)

Bistan da badela Nafarroako alde bat, Lizarre-ria, alegia, ez duena ia lurzorurik izanen eta atzerapen ekonomiko eta soziala pairatzeko zigorra behin betikoz ezarri nahi zaiola dirudi.

Bestalde, eztabaida garrantzizkoa ireki da Nafarroan industri hondakin mota desberdinak birziklatzeko planta handiak paratzea dela-eta. Hondakinak industria prozesuetan sortzen badira eta industriak industrialdeetan badaude, atera beharreko ondorioa da hondakinak tratatzeko faktoriak industrialdeetan paratu behar direla. Hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/94 Foru Legeak zehazten du hondakin berezi horiek esparru publikotik zein pribatutik kudeatu ahal izanen direla. Esparru pribatutik eginez gero, aipatutako plan horren eskakizunetara moldatu beharko da, eta segurtasun neurriak aurreikusiko direla dioenean azaldu beharko da hondakinak tratatu,

bildu edo biltegitratzean erabili beharko diren metodoak, paisaiarekin bat egiteko ahalegina egin beharko da... hitz batez, bete beharreko hainbat baldintza izanen dira.

Nafarroako Parlamentuak 1998ko otsailaren 20an eta 23an eginiko bilkuretan onetsi zuen hondakin berezien plan kudeatzaileak ezarri zuenez, hondakin bereziak deuseztatu eta kudeatzeko oinarritzko printzipioak tokian tokiko nahikotasuna eta hurbiltasuna dira. Planak hondakin mota honen produktioa pixkanaka jaisten joatearekin lotutako helburuak ezartzen ditu, energia edo lehengaiak lortzeko berriz erabiltzearen alde egiten da, baita ekidin ezineko hondakinak modu egokian, bai osasunaren aldetik bai ingurumenaren aldetik, deuseztatzearen alde ere. Baina ezer baino lehen, legeak eta planak hondakin berezien kudeaketa publikoaren alde egiten dute, argi eta garbi.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuari proposatzen diogu industrializazio plana berrazter dezan, Lizarrerrian industriarako lurzoru gehiago sortzeko

aukera aurreikusteko, hala eskatu baitute alde hartako alkate askok, eta, bestetik, industrialde bakoitzean eremu bat erreserbatzeko aukera aurreikusteko, industrialde horietan tratatu ahal izateko bertan sortutako hondakinak, salbuespenen bat ere baztertu gabe. Horretarako lehentasunezkoa iruditzen zaigu industrializazio plana Parlamentura igortzea.

Horregatik guztiagatik honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako industrializazio plana igor dezan Nafarroako Parlamentura eztabaidatu eta onartzeko, plangintza garrantzitsu hori ezagutzeko eta haren edukiari eta helburuei buruzko eztabaida egiteko eta aztertzeko; bideabar, plan horretan proposaturiko zenbait planteamendu, bereziki Lizarrerriaren ingurukoak, aldatzeko aukera emanen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 25ean

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hizkuntza Eskola Ofizialeko euskara-irakasleen plantilla osa dezan

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hizkuntza Eskola Ofizialeko euskara-irakasleen plantilla osa dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 8n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

MOZIOAREN TESTUA

Batasuna Talde Parlamentarioak Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babespean, honako mozio hau aurkeztu du, pasa den osoko bilkuran izandako jabelduraren ondorioz, hurrengo osoko bilkuran eztabaidatua eta onartua izan dadin:

Batasuna talde parlamentarioak jabeldura aurkeztu zuen oposaketetan izandako gertakari bat zela eta.

Nafarroako Hezkuntza Departamentuak urte honetarako aurreikusitako oposizioetatik Hizkuntza Eskolako bi lanpostu erretiratzea erabaki du, euskara sailari dagozkionak hain zuzen ere. Hori egiteko erabilitako argudioa euskarazko lanpostuetarako gaiteririk ez egotea izan da. Antza denez, espainiar Hezkuntza Ministerioak estatuko hizkuntza eskoletan irakasten diren hizkuntzen gaiteria egiterakoan, euskarazko gaiteria egitea "ahaztu" omen zaio. Eta Nafarroako Hezkuntza Departamentua oposizioiak martxan zirenean,

azkeneko orduan, gaitegia falta zeia konturatu omen da.

Gertakari hau zinez harrigarria egiten zaio sen arrunteko edozein pertsonari. Ehundaka langile, teknikari, ahokulari dituzten espainiar Hezkuntza Ministerioari euskararen gaitegia "ahazten" zaio eta Nafarroako Hezkuntza Departamentua azkeneko orduan "konturatzen" da. Argi ikus daiteke zer nolako arreta eskaintzen zaion nafarron hizkuntzari, euskarari. Eta azkenean, horra emaitza: euskarazko bi lanpostu oposiziotik kanpo. Azkeneko urteotan maiz gertatu bezala, euskararen normalkuntza prozesua da batzuen zein besteen axolagabekeriaren (kasu hoberenean) kaltetua.

Bestalde, gertakari honek argi eta garbi erakusten du zer nolako dependentzia mailak ematen diren Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren aldetik espainiar Hezkuntza Ministerioarekiko. Teorian hezkuntza mailako erabateko eskumenak ditu geure herrialdeak, baina praktikan oposizioa

batzuentzako gaitegia bezalako kontu arruntak espainiar ministerioaren esku daude.

Batasunak aurkezturiko jabeldurari erantzunez, Hezkuntza kontseilariak gaitegiaren "esperoan" zeudela aipatu zuen, eta gaitegia egoterakoan bi lanpostu horiei dagokien oposaketak burutuko zirela. Gure ustez Hezkuntza Departamentuak jarrera aktiboagoa eduki beharko luke, eta hori bultzatzeko asmoz honako mozio hau aurkezten dugu.

Hona hemen aurkezten dugun ebazpen-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafar Gobernua premiatzen du hizkuntza eskolako euskarazko plantilla iraunkorra ahalik eta denborarik laburrenean osatzeko beharrezkoak diren kudeaketak egin ditzan.

Iruñean, 2002ko martxoaren 26an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bizikletari buruzko plan zuzentzaile bat presta dezan

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bizikletari buruzko plan zuzentzaile bat presta dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 8n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak, erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Hiri arteko ibilbideetan bizikleta norberaren garraiorako erabiltzeak zenbait onura baditu: osasun fisikoa hobetzen du, trafikoa arintzen laguntzen duen garraiobide malgua da, eta gainezka egoten diren aparkalekuen arazorako lagungarri da, eta ez du kutsadurarik eragiten. Kasu askotan, autoan egiten diren bidaia motzen erdirako baino gehiagotarako alternatiba errealista izan daiteke, gainera. Bizikletaren erabilera kirol gisa garatzeko ere bermeak behar dira.

Hori dela eta, bizikletaren onura horietaz gozatu eta erabilera erakargarria eta segurua izatea nahi baldin badugu, baldintza batzuk bete behar dira, hala nola horretarako toki egokiak ematea eta neurriak hartzea bizikletak behar bezala apartatzeko eta ibiltzeko, baita txirindulariak babesteko ere, motoredun ibilgailuen trafikoa handia denean.

Bide publikoaren erabiltzaileen heziketa eta trafikoari buruzko legeen aplikazioa dira bizikletaren erabilerarekin bateragarria den garraio politika baten azken osagaiak.

Erabaki proposamena

– Nafarroako Gorteek Gobernua premiatzen dute bizikletaren plan zuzendari bat prestatzera aurtengo urria baino lehen eta hura Parlamentura igortzera eztabaidatu eta onesteko. Prestaketa lanetan aintzat hartuko dira arlo horrekin zerikusia duten gizarte elkarteak eta kontuan hartuko ere beste herrialde batzuetan izandako antzeko esperimentziak.

– Plan horren helburua izanen da bizikletaren erabilera sustatzeko behar diren neurriak zehaztea, besteak beste, toki agintariak eta kasuan kasuko erakundeak sustatzea, sostengua eta finantziazioa emanez, edo gaiarekin lotutako alderdien erantzukizunak zehaztea. Era berean, hirigintza eta bideen planeamenduan bizikleta erabili ahal izateko tokiak egokitu beharra hartuko da kontuan.

Iruñean, 2002ko apirilaren 4an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoa bana ez dezan eta ikastetxe elebidun gisa mantentzen dezan

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoa bana ez dezan eta ikastetxe elebidun gisa mantentzen dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 8n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Hamar urte badira Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoa ele bitako ikastetxe bihurtu zela, gaztelaniazko irakaskuntzari euskarazkoa gehitu zitzaionean. Euskarazko irakaskuntza garai hartan gutxiengoaren eredu baten ere, denboraren poderioz zabaltzen joan da, gehiengoaren hezkuntza-aukera bihurtu arte: gaur egun, ikastetxeak dituen 500 ikasleetatik 300 D ereduaren daude matrikulaturik.

Azken urteotan, bi ereduaren irakasle taldeetako kideen arteko desadostasunak –antolaketa-ekin baino haien interesekin loturik– azaleratu dira, baita ikastetxeko gurasoen elkarteetara –batez ere gaztelaniazko ereduak– zabaldu ere.

Joan zen ikasturteko udaberrian ikastetxeko eskola kontseiluan ikastetxea hizkuntza ereduaren arabera bitan banatzeko proposamena bozkatu zen. 8 boto izan ziren bi hizkuntza ereduak bere baitan hartzen dituen ikastetxe bakarrarekin jarraitzearen alde eta 6 boto horren kontra eta bi ereduak bereiztearen alde.

Gertaera hau ez da berria, ohikoa baizik UPN gobernuan izan dugun azken urteotan eta bereziki legegintzaldi honetan; adibiderik hurbilena, 2001ean Ave Maria ikastetxe publikoa bi ikastetxetan banatu izana. Begi bistakoa da UPNk interes nabaria duela bi hizkuntza ereduak bereiziko dituen marra bat ezartzeko, Gobernuaren hizkuntza politikaren ildo nagusiei jarraikiz. IUN/NEBen

iritziz, larriena da bereizketa horrek, ikastetxe publikoak banan-banan zatitzen doanak, eragin zuzena duela ikasleen bizikidetasunean eta, batez ere, hezkuntza komunitate osoaren bizikidetasunean eta ondorioz bizilagunen arteko bizikidetasunean, Atarrabiakoan, kasu honetan.

Hizkuntza ereduaren arabera bereizketa horrek ondorio kaltegarriak izan ditzake dagoeneko elebiduna ez baizik eta eleanitza den gure erki-degoko herritarren bizikidetasunean. XXI. mendearen hastapenean, migrazioak hartu duen pisuarekin, benetako ahaleginak egin behar ditugu sare publikoko gure ikastetxeetan bizikidetasun anitza, aberasgarria eta irekia sustatzeko. Hezkuntza ezagupen teorikoak erakustez harago doa, horregatik haren ardura dutenen jarrekin eta jokabideekin hausnarketa orokorra egiteko beta hartu beharko lukete, etorkizunean gizarte ireki eta anitza arrail lezaketen banalerroak ezarri aurretik.

Horregatik guztiagatik, honako hau proposatzen dugu:

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoaren balizko bereizketa egin ez dezan eta ele bitako ikastetxearen formula juridiko eta antolaketakoari eutsi diezaion.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua premiatzen du zenbait irakaslek eta guraso elkartek dituzten desadostasunek eta kezkek sortutako egoera bidera dezan, ikasleentzat erreferente pedagogiko izanen den bizikidetasun ona ekarriko duten konponbide egokiak erdiestearren.

Iruñean, 2002ko apirilaren 3an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza-zentroetan lagunduak diren zaharrentzako arretaren kalitatea hobetzeko araudia gaurkotu dezan

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza-zentroetan lagunduak diren zaharrentzako arretaren kalitatea hobetzeko araudia gaurkotu dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 8n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Gaietako Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Gizarte Gaietako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zaharretxeetan dauden zaharrei artatze ona ematen zaiela bermatzea ardura publikoko gaia da. Horretarako, beharrezkoa da zentroko instalazioak egokiak eta langileak nahikoak, egonkorak eta behar bezala prestatuak izatea. Egun, zaharrrak gero eta beranduago sartzen dira zentroetan eta horren ondorioz, zaharretxeetan daudenak egoera larriagoan daude eta mendekotasun handia dute.

Halere, zaharretxeetan laguntza hartzen dutenengan aldaketak izan badira ere, Gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzen duen maiatzaren 23ko 209/91 Foru Dekretua, berriz, ez da aldatu zaharretxee-

tan dauden pertsonak gaur egun dituzten laguntza-premietara egokitzeke.

Zaharretxeetan daudenetatik gehienek ezauzgarri erantzuteko dekretu hark ezartzen zituen langile ratioak baino handiagoak behar dira, baita plantillen egonkortasuna ere laguntzaren kalitatea ahal den onena izan dadin (prestakuntza etengabea, lanerako motibazioa, ezagutza berariazkoak). Esandakoaren kontrakoek, hau da, plantilla ez izateak eta lan baldintza eskasek –ekonomikoa, txandak, esker onekoa ez den lana– aldaketa etengabeak ekartzen dituzte langileen artean eta profesional kalifikatuen alde egitea eta, horrenbestez, zenbait zaharretxeetan ematen den laguntza okerragotzen ari da.

Bestalde, foru administrazioak ez du neurri bera erabiltzen udalen irabazi asmorik gabeko zaharretxeekin eta berarekin itunak izenpeturik dituzten entitateekin (merkataritza arlokoak), tratu desberdina ematen baitie batzuei eta besteei. Urte batzuetan ez dira gaurkotu udalen zaharretxeek eta irabazi asmorik gabekoek jasotzen dituzten laguntzak –eskubidea baitute–, baina zaharretxe pribatuekiko itunen prezioa urtero handitzen da KPIren igoeraren arabera.

Ekitaldi honetan, Gizarte Ongizateak laguntzen zenbatekoa igo egin da baina ez araudiak aurrerakusi eta ahalbidetzen duen gehienekora iritsi. Defiziterako laguntzak berandu ailegatzen dira edo zalantzazkoak dira, eta baldintza gogorrak eskatzen dira, besteak beste ustiatzeko gastuak murriztea zerbitzuetako azpikontraten bidez, hornidura kontratuak berriz negoziatuz eta langile gastuak txikiagotuz. Baldintza hauekin zaila da udal zaharretxeek eta irabazi asmorik gabekoek bere gain hartu ahal izatea zaharretxea dagoen tokian bizi ez diren eta pentsio txikiak dituzten zaharrentzat egiten diren eskaerak eta, are gehiago, gerta daiteke erabiltzaileak hautatzeko erabakia hartzea, lehentasuna emanez egonaldia ordaintzeko modua ziurtatua dutenei.

Gure iritziz, zaharretxeetako laguntza sisteman bi aldetako jarduketara betetzen ari da, eta horren ondorioa izan daiteke zaharretxe batzuek maila

ekonomiko altuko pertsonak hartzea eta beste batzuek pobreak hartzea, batzuk zein besteak nafar guztien diruekin ordainduta, finantziario publikoaren bidez. Ez da horrelako egoerarik gertatu gizarte zerbitzuen sistema publikoa ezarri zenez geroztik.

Halaber kezkatzen gaituzte zaharretxe batean ahaideak dituzten pertsona batzuen kexek, zaharretxearen kudeaketa enpresako partaide den entitatearen titularitatea dela-eta eta NGOIrekin itundua dagoen zentroa bada ere, horrek bermatu beharko lukeelako laguntzaren kalitatea urteko 365 egunetan. Zaharren ahulezia, bere iritzia adierazteko gai ez baitira, sentiberago eta exigenteagoak izateko arrazoia da, administrazioaren erantzukizuna handiagoa delako.

Adierazitako guztiagatik, IUN/NEBek honakoa aurkeztu du:

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzen duen maiatzaren 23ko 209/91 Foru Dekretuaren araudia gaurkotzera, zaharretxeetan dauden pertsona zaharrei ematen zaien laguntzaren kalitatea hobetzeko, honakoak zehaztuz: erabiltzaileen eskubideak, zaharretxeen baldintzen kontrola, profesionalen plantilletako lan baldintzak, eskainitako prestazioak, egonaldien ordainketa eta ahaideen eta lagunen bisitaldia, besteak beste.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zaharretxeetan daudenei laguntza emateko sektorerako politika homogeneo bati heldu diezaion, udalen eta irabazi asmorik gabeko zaharretxeetan tokiak ituntzea barne, zertarako-eta zentro horiei bide emateko zaharrei kalitatezko laguntza emateko, ahaleginak behar adinako finantziarioa bilatzera desbideratu gabe.

Iruñean, 2002ko apirilaren 4an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

F saila:
GALDERAK

Galdera, Larrako Natur Erreserban ipar eskiko zentro baterako obra-proiektua egiteko xedez sinaturiko protokoloari buruzkoa

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak Larrako Natur Erreserban ipar eskiko zentro baterako obra-proiektua egiteko xedez sinaturiko protokoloari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

GALDERAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galderak egin ditu, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Departamentuak idatziz erantzun ditzan.

Orain dela gutxi, Nafarroako Gobernuak Turismo zuzendari nagusiak eta Erronkari Ibarreko Batzarreko lehendakariak lankidetzako protokolo bat sinatu zuten, ibarrean ipar eskiko zentro bat egiteko obren proiektua taxutzearren. Obra horiek, egiten baldin dira, Larrako Natur Erreserba (NE-21)

–erreserba den aldetik 1987an gune babestu deklaratu zena– ukituko dute.

Nafarroako Parlamentuak, berriz, erabaki bat onetsi zuen 2001eko otsailaren 16an –UPNk eta CDNk aldeko botoa eman zuten, Batasuna izan zen kontrakoa eman zuten bakarra eta PSN, IU, EA eta Milagros Rubio abstenitu egin ziren–, Nafarroako Gobernuak premiatzen zuena Larrako Natur Erreserban eskiaren praktika zabaltzeko azterlanak egin zitzaizkien. Erabakian orobat aipatzen zen agian Nafarroako naturguneei buruzko legea aldatu beharko zela jarduera horri lege aldetik oztoporik ez jartzeko.

Hori dela-eta, gure talde parlamentarioak ondoko galderak egin ditu:

1.- Egin al du Nafarroako Gobernuak inolako azterlanik Larrako Natur Erreserbak (NE-21) hartzen duen lurraldean eskian, modalitate guztietan edo batzuetan bakarrik, aritzeko lurrak erabiltzen jarraitzeko edo zabaltzeko? Halakorik egin badu, erantsi erantzunari horren kopia.

2.- Zer interpretazio juridiko egiten du Nafarroako Gobernuak zabaltze hori baimentzearen Nafarroako naturguneei buruzko legea aldatu beharri buruz?

Iruñean, 2001eko otsailaren 12an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Galdera, SOS Navarra-Larrialdien Koordinaziorako Zentroan Positrón sistema behin betikoz ezartzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 8an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak SOS Navarra-Larrialdien Koordinaziorako Zentroan Positrón sistema behin betikoz ezartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du idatzizko erantzuna jasotzeko.

SOS Nafarroa-Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan, 2001eko irailean, sistema informatiko berria ezarri zen, Positrón izenekoa. Duela bi urte erosi bazen ere, ez dago osorik instalatuta oraindik, eta

CoordCom izeneko sistema zaharrekin batera, txandaka, erabiltzen da egun. Bidezkoa da esatea arazoak gertatzen ari direla sistema honen ezarpenean, batzuetan tratatu egiten baita eta aurrekoaz baliatu behar izaten delako horrelakoetan. Horri gehitu behar zaio zenbait langilek ez dutela oraindik jaso sistemaz baliatzeko behar duten prestakuntza. Amaitzeko, sistema informatikoaren metodo eragilea aurrekoa baino konplexuagoa da.

Horregatik guztiagatik, hauxe jakin nahi dugu:

– Zein dira, Nafarroako Gobernuaren ustez, SOS-Nafarroan Positrón sistema berria behin betikoz eta osorik ezartzeko beharko diren epeak?

– Zein dira instalatzean izan dituen arazoak eta nolako konponbidea emanen zaie?

– CoordCom sistema zaharraren mantentze lanak ziurtaturik al daude? Nola?

– Langileak egokitzeko prestakuntza ikastaro berriak egitea aurreikusirik al du?

– Sistema berriaren ibilbide eragilearen konplexutasunak neurriak eskatuko al ditu giza baliabideen arloan?

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Foru parlamentaria: Félix M^a Taberna Monzón

Galdera, kablearen instalazioari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 8an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak kablearen instalazioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroan kablea ezartzeak Foru Komunitateko eskualde guztiei eman behar die garapenerako aukera, egun, munduan informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak zeregin garrantzitsuak duten honetan.

Kablea ez jartzeak edo horretan atzerapena gertatzeak lehiakortasun-egoera zailean jartzen ditu hori jasaten dutenak, eta, beraz, lehenengo munduaren gizarte ongizate maila lortzetik gero eta urrunago.

Gure ustez, funtsezkoa da Nafarroak tresna hori barneko eta kanpoko berronkatzea lortzeko erabil dezan.

Galdera:

Lehena.- Egundaino, zer herritan ezarri da kablea?

Bigarrena.- Zein izan da, herri bakoitzeko nahiz biztanleko, kablea ezartzearen kostua?

Hirugarrena.- Zein dira kablea erkidego guztian ezartzeko aurreikusitako egutegi eta aurrekontuak, eta ukituta gertatuko diren herriak?

Iruñean, 2002ko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, herrietara eta industrialdeetara gasa eramateko planaren garapenari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 8an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak herrietara eta industrialdeetara gasa eramateko planaren garapenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernua herrietara eta industrialdeetara gasa eramateko plan bat ari da aurrera eramaten gure erkidegoan zehar.

Begi bistakoa da energia mota hori oso garrantzitsua dela garapen harmoniatu, orekatu eta lehiakorra ahalbidetzeko.

Horiek horrela, jakin nahi dugu, momentuotan, gai hau zertan den, zer aurreikuspen dauden eta, etorkizunera begira, zein den egutegia.

Galdera:

Lehena.- Aipatutako plana dela eta, Nafarroako zer herrik dute egun gas hornidura?

Bigarrena.- Zein izan da, guztira nahiz biztanleko, plana aurrera eramatearen kostua?

Hirugarrena.- Zer industrialdek dute egun zerbitzu hori, eta zer kostu du?

Laugarrena.- Zein dira herri nahiz industrialdeetarako aurreikusitako egutegi eta kostuak?

Iruñean, 2001eko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, Larrako Natur Erreserbarako eraikuntza-proiektu bat finantzatzeari buruzkoa

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Larrako Natur Erreserbarako eraikuntza-proiektu bat finantzatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baz-

tán jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, hurrengo galderak egin ditu Industria, Merkataritza eta Turismo kontseilariak erantzun diezazkion.

1.- Turismo zerbitzuak, zure departamentukoa baita, 108.000 euro eman al dizkio Erronkari Ibarreko Batzarrari eraikuntza-proiektu bat finantzatzeko Larrako Natur Erreserban?

2.- Ba al du kontseilariak proiektuaren berri, eta ezagutzen al ditu proiektuaren nondik norakoa? Ezagutuz gero, edukiari buruzko informazioa eman diezagun eskatzen diogu.

3.- Zer plan ditu zure departamentuak Erronkari Ibarren garapen ekonomikoari buruz.

Iruñean, 2002ko martxoaren 15ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoa banatzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 8an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoa banatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babese-

an, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1. Egia al da foru gobernuak Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoa bi ikastetxe juridikotan banatu nahi dituela, bertan dauden bi hizkuntza ereduak oinarri harturik? Erantzuna baiezkoa bada, zehaztu bereizketa horren arrazoiak.

2. Kontsulta egin al zaie ikastetxeko gurasoen elkarteei eta zuzendaritzari? Hala bada, zehaztu zein izan den bakoitzaren jarrera balizko banaketa horren aurrean.

3. Zein dira jarraitu beharreko prozesuaren pausuak?

Iruñean, 2002ko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Galdera, komunikazio informatikoetan erabiltzaileak babesteari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 8an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak komunikazio informatikoetan erabiltzaileak babesteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babese-

an, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Informazioaren gizartea errealitate ukaezina da eta, zalantzarik gabe, garapenean aurrera egiten laguntzen diguna. Baina, horrekin batera, kezka eragiten du, komunikazio informatikoetan erabiltzaileen intimitatea babesteari dagokionez.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Gobernua azterlanik prestatzen ari al da gai honi buruz behar den informazio guztia izateko?

– Pentsaturik al du gobernuak ekimenik aurkeztea erabiltzaileen intimitatea bermatzeko?

– Hala bada, zehaztu zein diren ekimen horiek.

Iruñean, 2002ko apirilaren 2an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Galdera, Médicos Sin Fronterasek oinarrizko medikamentuak eskuratzeko xedez eginiko kanpainan laguntzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 8an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Médicos Sin Fronterasek oinarrizko medikamentuak eskuratzeko xedez eginiko kanpainan laguntzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal

andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Jakin dugu Mugarik gabeko Medikuek izeneko elkartea kanpaina bat egiten ari dela gure herrialdea bezain garaturik ez dauden herrialde batzuek funtsezko medikamentuak eskuratzeko izaten dituzten arazoak direla-eta. Benetan onartezina da hain alde handia egotea gizarte garatuen eta azpigaratuen artean funtsezko medikamentuak eskuratzeko garaian (beste arlo askotan bezala).

Parlamentari honek interesa du hauxe jakiteko:

– Nafarroako Gobernuak aurreikusirik al du parte hartzea kanpaina horretan? Hala bada, nola gauzatuko da parte hartze hori?

Iruñean, 2002ko apirilaren 2an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	